

The image features a decorative background with three green circles of varying sizes, each composed of concentric layers of different shades of green. Two thin green lines intersect at the top left, forming a triangular shape that frames the circles. The text 'GAZTE-RUTA' is centered in a bold, green, serif font, underlined.

GAZTE-RUTA

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1.- SARRERA..... | 3 |
| 2.- EZAUGARRIAK. | 4 |
| 3.- HELBURU ESTRATEGIKOAK, ARLOAK, ESPARRUAK ETA JARDUERAK | 7 |
| 3.1.- BURUJABETZA. Emantzipazioa – Autonomia. 7 | |
| 3.2.- GURE ESTILOA. Gizarte eratzea..... | 14 |
| 3.3.- LURRALDE AKTIBOA. | 22 |
| 4.- KUDEAKETA SISTEMA..... | 34 |
| 5.- ANTOLAKUNTZA EGITURA..... | 34 |

1.- SARRERA.

Dokumentu honen (**GAZTE-RUTA**) helburua da Txorierriko Mankomunitatearen antolakuntzaren oinarriak ezartzea, gazte-politikak diseinatu eta abiarazteko. Horretarako, jarduera orokorreko esparrua egin da, garrantzia gehien dutela uste den eremuetarako. Eremu horiek zehazteko eskualdeko gazteentzat duten garrantzia bereziaren eta balizko eraginaren arabera hautatu dira.

Helburu estrategikoak definitzeko eta **GAZTE-RUTA** proiektua martxan jartzeko, Txorierriko Mankomunitateak aintzat hartu du, lehenengo eta behin, aurreko legegintzaldietan lortutako esperientzia eta ezagutza. Uste da esperientzia horretatik abiatuta hobekuntza-esparruak zehazten egin dena ebaluatu ahal dela, Txorierriko gazteen bizikaltatearen hobekuntza era egokiagoan sustatze aldera.

Bigarrenik, dokumentuaren oinarrian honako programa hauen bidez ezarritako jarraibideak ere badaude: Bizkaiko Foru Aldundiaren "Gaztedi Bizkaia" proiektua eta Europar Batasunaren "Gazteak Ekinean 2007-2013", "Gazteak Mugimenduan", "Europa 2020 Estrategia" eta "Europako Batzordearen liburu zuria" programak. Horiek guztiek nabarmendu egiten dute beharrezkoa dela elkarbizitza, kultura artekotasuna eta tolerantzia bezalako baloreak indartzea, eta gazteen partaidetza, prestakuntza, enplegua eta mugikortasuna sustatzen ditu.

Azkenik, esan beharra dago gaur egun inguruan indarrean dauden zenbait gazte-politika eta garatzen ari diren materia eta proiektu zehatzagoak aztertu direla, horiek arautzen dituzten proposamenei buruzko oinarrizko informazioa lortzeko.

2.- EZAUGARRIAK.

GAZTE-RUTA proiektua definitzen duten oinarriko ezaugarriak, Txorierriko Mankomunitateak 2011-2015 legegintzaldian garatu nahi dituenak, honako hauek dira:

- **Zeharkakotasuna.** Gazte-politiken bidez, helburu partekatuak lortzea bilatzen da. Horretarako, Txorierriko Mankomunitateko eta Mankomunitatea osatzen duten udaletako hainbat lan-arlotatik programak babesten eta exekutatzeko dira.
- **Izaera operatiboa.** Gazte-politiken asmoa ez da diskurtsoan amaitzea, ezpada egiazko eragina bilatzea, eskualdeko gazteen beharrezko erantzun zehatza eman ahal izatea.
- **Eskuduntza.** Gazte-politikak eskualdeko udalen eskuduntzen baitan daude, eta eskualdean dauden aukerak ahal den beste zabalduko dira, errealitatean eragina izate aldera.
- **Egungo testuingurua.** Gaur egun egoera ekonomiko latza bizi dugu, eta testuinguru horretan egin dira gazte-politikak, hala euren definizioari nola bilatu nahi den irismenari dagokienez.
- **Planifikazioa eta ebaluazioa.** Baliabideen koherentzia, jarraitutasuna eta optimizazioa bermatzen dituen antolakuntza-esparru gisa, baita jarduera eta proposamen guztietan hobekuntza etengabea egiteko ere.
- **Elkarlana eta koordinazioa.** Jarduerak koordinatu egingo dira, esku-hartzeak eraginkorragoak izateko eta bat etortzeko baliabideen erabilera arrazionalarekin.
- **Hurbiltasuna.** Gazteen jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen prestazioa, funtsean, tokiko esparruan egin behar da; hots, gazteenganako hurbiltasuna sustatu behar da.

Legegintzaldi honetan gazte-politiken norabidea ezarriko duen **helburu orokorra** honela adieraz daiteke:

*“Pertsonen erabateko integrazioa lortzea. Horretarako, **burujabetza-autonomia** handiagoa dakarten oinarrizko proiektuak garatuko dira, zentzu demokratikoa aberastea ahalbidetzen duten **partaidetza-prozesuak** bultzatuko dira eta harro egoteko moduko gizartea eraikitzen laguntzen duten **baloreak sustatuko** dira.”*

Hortaz, argi eta garbi eragin nahi da **3 helburu estrategikotan eta 6 arlotan**:

1. **Burujabetza.** Emantzipazioa-autonomia
 - a. **Enplegua.**
 - b. **Etxebizitza.**
 - c. **Mugikortasuna.**
2. **Gure estiloa.** Gizartea eratzea.
 - a. **Gizarte mailako esku-hartzea.**
 - b. **Baloreak sustatzea.**
3. **Lurralde Aktiboa.** Lurralde aktiboa.
 - a. **Partaidetza.**

Hori **15 jarduera-esparrutatik** egingo da:

1. Euskara
2. Informazioa eta zerbitzuak hedatzea
3. Enplegua eta lan-munduan sartzea
4. Hezkuntza eta prestakuntza
5. Etxebizitza
6. Gizarte Ekintza
7. Kultura
8. Kirola
9. Aisia eta aisialdia
10. Osasuna eta Prebentzioa
11. Ingurumena
12. Kontsumoa
13. Informazio Gizartea
14. Boluntarioritza
15. Garraioa

3.- HELBURU ESTRATEGIKOAK, ARLOAK, ESPARRUAK ETA JARDUERAK

3.1.- BURUJABETZA. Emantzipazioa - Autonomia.

Emantzipazioa, hitzaren zentzu zurrunenean, gurasoen agintetik edo tutoretzatik askatzea da; norbanakoak familiarekin duen menpekotasun ekonomikotik askatzea. Familiaren esparrutik irtetea eta autonomia pertsonala lortzea da.

Alabaina, bizi dugun krisi ekonomikoaren testuinguruan askoz ere gaitzagoa da gazteak emantzipatzea. Hori dela eta, administrazioetatik ahalegin handiagoa egin behar da eta baliabide eta programa zehatz gehiago antolatu behar dira, trantsizio hori errazteko.

Gazteriaren autonomia ahalbidetze aldera, Txorierriko Mankomunitateak hiru esparrutan lan egingo du:

- *Enplegua.*

Krisi ekonomikoak eragin handia izan du biztanle gazteenen sektorean; izan ere, bertan daude langabezia-tasa handienak, aldi baterako kontratu gehienak eta lan-baldintza txarrenak. Gazteen arteko langabezia-tasa % 20koa da, eta horrek erakusten du gelditu beharreko egoera zer-nolakoa den. Bada, geldiarazteko prestakuntzari, auto-enpleguari eta laguntzari buruzko programak prestatuko dira.

- *Etxebizitza.*

2009an emantzipatutako gazteen tasa % 43,5ekoa zen, eta batez besteko emantzipazio-adina 29 urtekoa. Horrek esan nahi du ezinbestekoa dela gazteen emantzipazioa sustatzea. Horretarako, prozesu hori ahalbidetzen duten etxebizitzak erosi edo alokatzeko programak baliatuko dira.

- *Mugikortasuna.*

Gazteen artean dagoen beharrian nagusietako bat mugikortasunari lotuta dago. EAEko gazteen % 51,5k erabiltzen dute garraio kolektiboa. Erronka da garraio-zerbitzuek eragin positiboa izatea; zehazki, gazteen mugikortasun eta irisgarritasun zuzenagoa erraztu nahi da, hezkuntza-, kultur eta aisialdi-baliabideetara iristeko.

JARDUERAK

| BURUJABETZA Emantzipazioa Autonomia | ENPLEGUA | | |
|---|---|--|---|
| | Arloa: ENPLEGUA LAN MUNDUAN SARTZEA | EGAZ sustatzea, Txorierriko Mankomunitatean enplegu arloko erreferente gisa. | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- EGAZek eta Lanbidek eskainitako zerbitzuak hedatzea. | Lanbide EGAZ GIB Ikaskuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Enplegu eta lan munduan sartzeko zerbitzuan artatutako eskaera kopurua. |
| 2.- EGAZekin lankidetzan aritzea gazteen artean enplegua sustatzen duten ekintza guztietan. (BEO datu-base berria osatzea, gazteen artean enpleguaren arazoa aztertzeko topaketak egitea, norberaren kontura laneratzeari buruzko tailerrak antolatzea, negozio-ideien inguruko lehiaketa egitea eta abar). | EGAZ GIB Ikaskuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Lankidetzak-ekintzen kopurua. |

| BURUJABETZA | ENPLEGUA | | |
|--|---|--|--|
| Emantzipazioa Autonomia | | | |
| Arloa: ENPLEGUA LAN MUNDUAN SARTZEA | Lan eskaintzak gazteei helaraztea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Deialdi publikoen berri ematea Gazte Txostenean. | GIB Gaztebizz Ikaskuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Deialdi publikoak hedatzeko ekintza kopurua. |

| BURUJABETZA | ENPLEGUA | | |
|--|--|--|-----------------------------------|
| Emantzipazioa Autonomia | | | |
| Arloa: HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA | Txorierriko Mankomunitateko prestakuntza zentroak sustatzea, batez ere euskararen erabilera eta enplegurako prestakuntza sustatzen badute. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Prestakuntza-eskaintza eta matrikula egiteko epeak argitaratzea. | Politeknika ikastegia (HETEL) AEK Txepetxa IMK Derio Txorierriko Udal Euskaltegia Ikaskuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, 2012ko abuztutik aurrera. | Hedatutako erreferentzia kopurua. |

| BURUJABETZA Emantzipazioa Autonomia | ENPLEGUA | | |
|--|---|--|--|
| Arloa: HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA | Prestakuntzari dagokionez, erabiltzaileek egindako eskaerei erantzutea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Bizkaian eskaintzen den prestakuntza, formala izan ala ez, Gazte Txostenean sartzea. | Hobetuz Lanbide GazteBizz Ikaskuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Prestakuntza-eskaintza hedatzeko egindako ekintza kopurua. |

| BURUJABETZA | ETXEBITZA | | |
|--|--|--|---|
| Emantzipazioa Autonomia | | | |
| Arloa: Etxebizitza | Etxebizitza bat lortzea ahalbidetu dezaketen laguntza eta promozio guztien berri ematea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Txorierriko Mankomunitatetik gazteak emantzipatzeko abiarazten diren proiektuetan laguntzea. | | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako bilera kopurua eta dokumentazioa zenbat aldiz aztertzen den. |
| 2.- Etxebidek eta Bizkailurrek Txorierrirako prestatu dituzten jarduerak argitaratzea. | Bizkailur GIB Etxebide Etxebizitza Bulegoa Udaletxeak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Argitalpen kopurua eta ekintzak zenbat aldiz jakinarazten diren. |
| 3.- Hainbat udalerritako Etxebizitza Erregistratzeko Zerbitzua hedatzea. | | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Erregistroan erabilitako erreferentzia kopurua. |
| 4.- Etxebide, Bizkailur eta beste etxebizitza-sustapen batzuen zerbitzuak jasotzeko aholkularitza. | Bizkailur GIB Etxebide Udaletxeak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Etxebizitza hedatzeko egindako ekintza kopurua. |

| BURUJABETZA Emantzipazioa Autonomia | MUGIKORTASUNA | | |
|---|--|--|-----------------------|
| Arloa: Mugikortasuna | Erabiltzaileek egindako eskaerei erantzutea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEKA |
| 1.- Bidegorriak osasunerako garraio onak direla kontzientziatu. 2.- Taldekako garraioa erraztu aisialdia eta kultura sustatzen duten jardueretarako. | GIB Euskara Zerbitzua | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Erabiltzaile kopurua. |

3.2.- GURE ESTILOA. Gizarte eratzea.

Helburu honen garapenarekin, lehenengo eta behin, zenbait faktore estrukturalen ondorioz **gizartean arriskuan** edo **urrakortasun-egoeran** dauden gazteentzako arreta eta esku-hartzea ezarri nahi da, funtsezko eta baztertu ezinezko lan-esparrua dela uste baitugu.

Bigarrenik, maila orokorrago batean, helburu honen garapenak **baloreen sustapena** indartu nahi du. Hartara, berdintasuna, elkarbizitza, tolerantzia, errespetua edo solidaritatea bezalako baloreak identifikatu eta bultzatu ahal izango ditugu, gizarte-kohesio handiagoa lortze aldera.

Bi lan-esparru ezarri dira, eta honako hauek dira horien helburuak:

- *Gizarte arloko esku-hartzea.*

Txorierriko Mankomunitatearen helburu nagusietako bat herritar guztien **gizarte-ongizatea** da, bereziki gizarte-arriskuan dauden pertsonen dagokiena; hala nola, egoera ekonomiko latza bizi duten pertsonak, desegituratutako familiak, tratu txarren biktimak edo droga-menpekotasuna dutenak.

Hortaz, beharrezkotzat jo da pertsona horiek **gizartean sartuko** direla bermatzea. Halaber, prebentzioaren ikuspegitik zenbait programa sortu behar dira, urrakortasun-egoera horiek eta gizartetik kanpo gelditzeko arriskua murrizteko.

- Arreta berezia jartzea zailtasunak dituzten, **zailtasunak dituzten eta/edo gizarte- eta kultur mailan desabantaila- edo desberdintasun-egoera bizi duten gazteen kolektiboetan.**

- *Baloreak sustatzea.*

Baloreak sustatzen dituen arloak baloreak gizartean prestatu, transmititu eta aberastu behar direla nabarmentzen du. **Identitatea, solidaritatea, tolerantzia, errespetua, kultura artekotasuna edo iraunkortasuna** bezalako baloreak funtsezkoak dira gure gizartearen oinarrietarako, eta gazteen ekarpen handiak bil ditzakeen muina osatzen dute.

Zehazki, horren barruan zenbait jardunbide antolatzen direla kontsideratzen du, eta guztien helburua da honako esparru hauek azpimarratzea:

- Gazteei begira egindako ekintza edo politika guztiak babestu eta bultzatzea. Lehentasuna emango zaie **euskara** komunikazio-hizkuntza gisa dutenei.
- Kohesioa sustatzea. Horretarako, gizarteratzea eta tokiko **kultura**rekiko eta tradizioekiko identifikazioa bultzatuko dira. Halaber, gizartean dauden beste kultur adierazpen batzuekin partekatutako ezagutza eta praktikak sortuko dira.
- **Bizimodu osasungarriaren** baloreak sustatzea eta drogak hartzeak, sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunek zein ausartegi gidatzeak dituzten arriskuak azaleratuko dira. Era berean, ohitura osasungarriak sustatzeko, kirola egitea bultzatuko da.
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun**-baloreetan hezte eta balore horiek transmititzea. Uste da ezberdintasun estruktural hori agerikoa dela gizartean oraindik ere, eta, horretarako, genero-ikuspegia gehituko da gazteen esparrutik garatzen diren lerro estrategiko eta ekintza guztietan.
- Natura, ekonomia- eta gizarte-ingurugiroaren **iraunkortasuna** baloratzen duten mekanismoak abiaraztea, etorkizuneko gizartearen bizi-kalitatea hobetze aldera.

JARDUERAK

| GURE ESTILOA | GIZARTE ARLOKO ESKU HARTZEA | | |
|--|--|--|---|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Gizarte Ekintza | Gazteen artean genero indarkeria prebenitzen eta errotik kentzen laguntzen duten ekintzak gauzatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazteentzako berdintasun plana martxa jartzea Berdintasun Sailarekin. | Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak Mankomunitateko Berdintasuneko teknikariak GIB Esku-hartze komunitarioa | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako bilera kopurua eta dokumentazioa zenbat aldiz aztertzen den. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|-------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Euskara | Informazio zerbitzuetan euskarari lehentasuna ematea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazteei eta beste profesional batzuei euskaraz hitz egitea: "Lehen hitza, beti euskaraz". | GIB Euskara Zerbitzua Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako kontsulten ehunekoa. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Gizarte Ekintza | Gazte guztien artean norbere autonomia eta elkarrekintza komunitarioa sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazteen kultur aniztasunari buruzko prebentzio eta gizarte esku-hartze kanpainak sustatzea, dibertsitatea eta genero ikuspegia kontuan hartuta. | GIB Esku-hartze komunitarioko teknikariak Berdintasuneko teknikariak Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Hedatutako kanpaina kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|--|--|--|-------------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Gizarte Ekintza | Gazteen artean genero indarkeria prebenitzen eta errotik kentzen laguntzen duten ekintzak gauzatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Indarkeriaren haurkako informazio kanpaina Txorierriko jai eremuetan . | Berdintasun teknikaria GIB Udalak Esku-hartze komunitarioko teknikaria Jai batzordeak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Kanpaina hedatzeko ekintza kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|--|--|--|--------------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Gizarte Ekintza | Gazteen artean zaintzaren etika sustatzea: norik bere burua, gainerakoak eta ingurunea zaintzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gizarte sareen erabilera segurua eta osasungarria sustatzea. 2.- Belaunaldi arteko harremanak bultzatzea. 3.- Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria ekiditea. 4.- Genero indarkeria ekiditea. 5.- berdintasuna sustatzea. | GIB Esku-hartze komunitarioko teknikaria | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Kanpainak hedatzeko ekintza-kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|----------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Kultura | Bizkaian bultzatzen diren kultur eskaintza guztiak ikusgai jartzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazte Agenda sortzea. | GIB GazteBizz Udalak Gaztelekuak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Sortutako Gazte Agenda kopurua. |
| 2.- Gazteei zuzendutako jarduerak kulturak sustatzea. | GIB GazteBizz Udalak Gaztelekuak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako kultur ekintza kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|----------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Osasuna eta prebentzioa | Gazteen artean osasuna eta bizitza ohitura osasungarriak hartzea sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Osasunerako hezkuntza programak garatzea. | Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak Txorierriko Mankomunitateko Esku-hartzeko teknikariak GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako kanpaina kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|------------------------------------|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Ingurumena | Gazteek iraunkortasun planetan parte hartzeko dituzten aukeren inguruko informazioa ematea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| Mankomunitatean iraunkortasun arloan hartzen diren neurriak azaltzea. | GIB Txorierriko Mankomunitateko Toki Garapenerako teknikariak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Neurrien inguruko hedapen kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|--|--|---|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Ingurumena | Natura ingurunea babestearen eta horretaz modu arduratsuan gozatzearen inguruan sentsibilizatzea eta gazteengan ingurumenarekiko ohitura sostengarriagoak sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Txorierriko natura baliabideak sustatzea. | GIB Jata Ondo Mendi elkarteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Banatudako dokumentazioan zenbat sartu den. |
| 2.- Mugikortasun sostenigarriagoa sustatzea. | GIB Mankomunitateko Toki Garapenerako teknikariak Udalak Familia Hezkuntza Zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Banatudako dokumentazioan zenbat sartu den. |
| 3.- Birziklatzea oro har sustatzea | GIB Mankomunitateko Toki Garapenerako teknikariak Udalak Familia Hezkuntza Zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Banatudako dokumentazioan zenbat sartu den. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|--|---|--|---|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Kontsumoa | Gazteei, kontsumitzaile eta erabiltzaile diren heinean, dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Kontsumo iraunkorrari eta bidezko merkataritzari buruzko informazioa ematea. | GIB Bizkaiko Bidezko Merkataritza | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Kontsumo iraunkorrari eta bidezko merkataritzari buruzko aipamen kopurua. |

| GURE ESTILOA | BALOREAK SUSTATZEA | | |
|---|---|--|---|
| Gizartea eratzea | | | |
| Arloa: Kontsumoa | Kontsumo ohitura arduratsua, kritikoa eta solidarioa sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Truke bidezko kontsumoa sustatzea gazteen artean. | GIB Bizkaiko Bidezko Merkataritza | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Kontsumo iraunkorrari eta bidezko merkataritzari buruzko aipamen kopurua. |

3.3.- LURRALDE AKTIBOA.

Gazte-politiken lehentasunen baitan, gazteen artean **herritar aktiboak** eraikitzea da beste ardatzetako bat. Aintzat hartuta gazteek eraikiko dutela etorkizuna, baina oraina begi-bistatik galdu gabe, lan-esparrutzat zehaztu da gazteen partaidetza sustatzea, gazteak bizitza sozialaren eta politikoaren mekanismoetan sartzeko. Horrela, aberastu egingo da gure gizartearen zentzu demokratikoa.

Herritar aktiboak lortu nahi dituen arloa honako hau da:

- *Partaidetza.*

Partaidetza sustatzeko eta gazteria aktiboa lortzeko, honako jardunbide-ildo hauek ezarri dira:

- **Informazioa eta komunikazioa** sustatzea, aintzat hartuta partaidetzarako bide berriak (foroak, gizarte-sareak, etab); izan ere, ez dira formalki edo erakundeetatik eratu, baina gero eta leku handiagoa dute gazteen eguneroko bizimoduan. Bestalde, informazio-, koordinazio- eta dinamizazio-organo eta esparruak finkatuko dira.
- **Gizarte-partaidetza** bultzatzea, **gazteen ekimenak** babesteko programak sustatuz. **Elkarte-sarea** ere bultzatuko da, **boluntarioritza** sustatuz.
- **Gizarte-berrikuntzaren** alde egitea, gazteekin komunikazioa hobetze aldera. Dauden baliabideak optimizatu eta etorkizunekoak aintzat hartuko dira. Horretarako hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesu parte-hartzaileak ezarriko dira.

- Sarean egindako lana sustatzea. **Sare integrala, sailen artekoa eta koherentea** sortuko da, Txorierriko gazte eta eragileei ematen zaizkien **zerbitzuei** dagokienez. Maila teknikoan eta politikoan egingo da lan, eta gogoan izango dira erakundeak eta gizarte-eragileak.
- **Komunikazio jarraitua, dinamikoa eta eraginkorra** bultzatuko da honako arlo hauetan: dauden zerbitzu eta programen eskaintza, gazteriaren arloan bultzatutako politikak, gazteentzako informazio interesgarriak eta gizartean eta erakundeetan parte hartzeko dauden aukerak.

JARDUERAK

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|--|--|--|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Euskara | Informazio guztia bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea eta euskarari lehentasuna ematea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Euskarak lehentasuna izango du gazteei zuzendutako informazioan. | GIB Hizkuntza Normalizazio ko teknikariak Euskara Zerbitzua Itzulpen Zerbitzua Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Blogean eta sare sozialetan bi hizkuntzatan egindako sarrerren ehunekoa Lehentasuna duten eta bi hizkuntzatan egindako hedatzeko kanpainen ehunekoa Bi hizkuntzatan egindako txostenen ehunekoa (Boluntarioak, Gazte, Lana eta Hilabetekoa). |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|--|---|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Euskara | Gazteei zuzendutako ekintzak euskaraz egitea, Euskaraz egiteko aukerak ugalduz. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazteriak parte hartzen duen hedatzeko kanpaina guztietan nagusiki euskara erabiltzea: (Euskararen Eguna, IHES prebenitzeko kanpaina, Alkohola eta gazteriar buruzko kanpaina, Cannabisaren kontsumoari buruzko kanpaina, Berdintasunari eta emakumearenganako indarkeriari buruzko kanpaina, festetako kanpainak). | Euskara Zerbitzua GIB Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Euskaraz egindako ekintzen inguruko kanpainen ehunekoa. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|---|--|-------------------|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Euskara | Euskara teknikariei laguntzea sail honetako kanpaina guztietan. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Helburu nagusia euskara sustatzea duten kanpainak hedatzea (Berbalagun, Izarren Distira, Berdinean Euskaraz, aurre-matrikulazio kanpaina, Euskara ikasteko diru-laguntzak, Euskarazko Produktuen katalogoa, Elkartetarako itzulpen zerbitzua, Ipuin lehiaketa...). | Txorierriko Mankomunitateko Euskarako teknikariak GIB Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Kanpaina kopurua. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|--|---------------------------------------|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Zerbitzuak eta informazioa hedatzea | Gazteentzat sortutako eta jasotako informazioaren hedapena bermatzea 'Informazio Sarea'-ren bidez. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- 'Informazio Sarea' osatzen duten ekipamenduak bisitatzea astean behin. | GIB Txorierriko Mankomunitatea Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Ekipamenduei egindako bisita kopurua. |
| 2.- Txorierriko Mankomunitatean sortutako materiala eta kanpainak (txostenak, Garmitxa, ordutegia...) hedatzea. | GIB Txorierriko Mankomunitateko teknikariak Elkarteak Gaztelekuak Udalak Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Txosten eta kanpaina kopurua. |
| 3.- Bizkaian sortutako materiala eta kanpainak (Gazte Berri, Gazte On Kz...) hedatzea. | GIB OIJak BFA CTID Elkarteak Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Txosten eta kanpaina kopurua. |
| 4.- Berriazko eremutat Bizkaia ez duten beste erakunde batzuetatik datozen materiala eta kanpainak (Berriz Berri, laguntza berezietarako telefonoak...) hedatzea. | GIB EGK Eusko Jaurlaritza Injuve Elkarteak Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Txosten eta kanpaina kopurua. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|---|---|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Zerbitzuak eta informazioa hedatzea | Udalerrri bakoitzeko informazio zerbitzuak agerian jartzea | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Zerbitzua eskaintzen den lekua eta ordutegia identifikatzea. | Txorierriko udalak Txorierriko Mankomunitatea GIB Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Materiala mantentzeko egindako azterketa kopurua. |
| 2.- Zerbitzu gida egitea, eskaintzen diren zerbitzuak aurkezteko. | GIB Txorierriko Mankomunitateko euskarako teknikariak Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, 2012ko apirilaren 17a baino lehen. | Gidaren argitalpen kopurua. |
| 3.- GIB hedabideetan agertzea (agendetan, webguneetan, aldizkarietan...). | GIB Txorierriko Mankomunitateko kulturako teknikariak Gazte elkarte Gazte talde antolatuak Gazteak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Hedabideetan zenbat aldiz agertzen den. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|--|-----------------------------------|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Kiolak | Gazteen artean kirola egitea sustatzea, eta bizitza ohitura osasungarrien inguruan gazteei sentsibilizatzen laguntzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gaztelekuen edo gazteei zuzendutako ekipamenduen arteko txapelketak sustatzea. | GIB Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak Udaletako kulturako teknikariak Hezkuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Antolatutako txapelketa kopurua. |
| 2.- Txorierrin eskaintzen diren elkarte federatu zein ez federatuen jarduerak antolatzen laguntzea. | GIB Elkartek Hezkuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Parte hartutako jarduera kopurua. |
| 3.- Txorierriko kirol ekipamenduak sustatzea. | GIB Udaletako kulturako teknikariak Hezkuntza zentroak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako aipamen kopurua. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|--|---|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Aisia eta aisialdia | Elkarteek gazteriarri zuzendutako aisiarako eta aisialdirako ekintzen eskaintza sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Elkarteen zerrenda bat egitea. | Udaletako kulturako teknikariak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Elkarteen zerrendako kontaktu kopurua. |
| 2.- Gazteekin lan egiten duten elkarte guztien jarduera zabaltea. | Udaletako kulturako teknikariak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Elkarteen jarduera zenbat aldiz jakinarazten den. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|---|--|---------------------------------------|--|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Aisia eta aisialdia | Txorierriko udaletako gazte ekipamenduetatik proposatzen den eskaintza hedatu eta sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Ekipamenduetako aisialdirako jarduerak hedatzea Gazte Agendan. | Udaletako kulturako teknikariak. Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak. | Dokumentua indarrean dagoen bitartean | Gazte Agendan sartutako jarduera kopurua. |
| 2.- Gaztelekuak edo gazte-ekipamenduak euren egitarauetan partekatutako ekintzak sustatzea. | Udaletako kulturako teknikariak. Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak. | Dokumentua indarrean dagoen bitartean | Partekatutako eta gauzatutako ekintza kopurua. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|--|---|-----------------------------------|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Aisia eta aisialdia | Herritar gazteen artean aisía eta aisialdia erabiltzeko zein gozatzeko ekintzak sustatzea eta laguntzak hedatzea | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Aisialdirako erakundeek ematen dituzten txartelek eskaintzen dituzten deskontu eta abantailak hedatzea | GIB Bizkaiko Foru Aldundia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, 2 edo hiru aldiz | Hedapen kopurua |
| 2.- Bidaiateka bat sortzea eta dinamizatzea bidaiak antolatzeko laguntza zein orientazioa eskaintzeko | GIB Gazte Udalak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean | Bidaiatekan sartutako informazioa |
| 3.- Jardueretarako deskontu txartelak egitea (aterpevide txartelak eta nazioarteko txartelak) | GIB Eusko Jauriaritza | Dokumentua indarrean dagoen bitartean | Egindako txartel kopurua |

| LURRALDE AKTIBOA | | PARTAIDETZA | | |
|---|---|---|-------------------------------------|--|
| Lurralde aktiboa | | | | |
| Arloa: Osasuna eta prebentzioa | | Gazteen artean osasuna eta bizitza ohitura osasungarriak hartzea sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK | |
| 1.- Genero indarkeria prebenitzeko kanpainetan parte hartzea. | Gaztelekuak edo gazteentzako ekipamenduak Berdintasuneko teknikariak Esku-hartzeko teknikariak GIB Emakunde Bizkaiko Foru Aldundia Eusko Jaurlaritza Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Zenbat kanpainatan hartu den parte. | |

| LURRALDE AKTIBOA | | PARTAIDETZA | | |
|---|--------------------|--|-----------------------------------|--|
| Lurralde aktiboa | | | | |
| Arloa: Informazio gizartea | | Gazteek informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK | |
| 1.- KzGuneako zerbitzuak sustatzea Txorierriko herri guztietan. | KzGunea GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Hedatutako erreferentzia kopurua. | |
| 2.- GazteBizz eta Gazteaukera gazteen artean informazio iturri gisa erabiltzea. | GazteBizz | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Egindako erreferentziak. | |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|---|--|---|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Osasuna eta prebentzioa | Gazteen osasunean eta prebentzian eragina duten eragileen arteko koordinazioa sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Aldizka bilerak Txorierriko langileekin eta zuzenean gazteriarekin lotutako lana egiten dutenekin. | Udaletako kulturako teknikariak Gaztelekuetako edo gazte ekipamenduetako langileak GIB Familia | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, hileroko. | Egindako bilera kopurua eta dokumentazioa zenbat aldiz aztertzen den. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|---|--|---|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Informazio gizartea | Interneteko sare sozialetan gazteen arteko elkarreragina sustatzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| Bloga sortu eta dinamizatzea. | GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, 2012ko ekaina | Bloga zenbat aldiz eguneratzen den. |
| Sare sozialetan (Tuenti eta Facebook) agertzea eta dinamizatzea. | GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean, 2012ko ekaina | Jarraitzaile eta lagun kopurua Jarduera kopurua eta hedatutako informazio garrantzitsua. |

| LURRALDE AKTIBOA | PARTAIDETZA | | |
|--|---|--|--|
| Lurralde aktiboa | | | |
| Arloa: Boluntarioritza eta partaidetza | Kideen artean herritar gazteak dituzten zonaldeko elkarten sare guztiarekin koordinazio eta lan espazio ezberdinak abian jartzea. | | |
| EKINTZA | AGENTEAK | NOIZ | ADIERAZLEAK |
| 1.- Gazteek zonaldeko elkarten mugimenduetan parte hartzeko bideak sortzea eta sustatzea. | GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Elkarteetan zenbat aldiz agertzen den. |
| 2.- Gazteen parte hartzeko modu berriak sustatzea eta aintzatestea. | GIB | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Sortutako informazioan egindako aipamen kopurua. |
| 3.- Boluntarioen beharrianak hedatzea eta gizarte eta kirol arloko partaidetza. | GIB Bolunta | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Hedatutako argitalpen kopurua. |
| 4.- Sustapen kanpainak eta gazte boluntarioak erakartzeko kanpainak (adinekoei, haurrei eta abarrei laguntzeko). | GIB Gizarte langileak | Dokumentua indarrean dagoen bitartean. | Hedatutako kanpaina kopurua. |

4.- KUDEAKETA SISTEMA.

Txorierriko Mankomunitateak ekitaldi bakoitzaren hasieran, programazio-dokumentu bat egingo du, honako hauek jasoko dituena: ardatz estrategikoak, arloak, jarduera-esparruak eta jarduera-programen xehetasunak (kopuru ekonomikoa, helburuak eta hasiera bateko adierazleak).

Era berean, urtero konpromiso horiei buruzko ebaluazio-dokumentua egingo da, ekitaldi bakoitzaren amaieran. Bertan jasoko dira kopuru ekonomikoa eta azken adierazleak.

5.- ANTOLAKUNTZA EGITURA.

Gazte-Rutaren jarraipena egitea, Txorierriko Mankomunitatearen Kultura eta Euskera Informazio Batzordeari dagokio.

Honez gainera, Txorierriko Gazte Informazio Bulegoan, herri bakoitzean dauden informazio guneen bitartez, gazteriak Gazte-Rutaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea bermatuko da.